

# TRATAMENDU ANTOZIAGULATZAILEAREKIN BIZITZEA

## ZER DIRA?

Odolaren koagulazioa aldatzen duten medikamentuak: **odolak koaguluak** (tronboa edo tapoia) **osatzen ematen duen denbora atzeratzen dute**. Odol-hodien barruan odolbildurik ez sortzeko ematen dira, iktusak, tronbosiak edo enboliak ekiditeko.

## MOTAK

- **K antibiotamina:** azenokumarola (Sintrom®), eta warfarina (Aldocumar®).
- **Eragin zuzenekoak:** Dabigatrana (Pradaxa®), erribaroxabana (Xarelto®), apixabana (Eliquis®) eta edoxabana (Lixiana®).
- **Heparina injektagarria:** Enoxaparina sodikoa (Clexane®), Dalteparina sodikoa (Fragmin®) etab.

## NOLA ZAINDU NEURE BURUA?

- **Jan denetarik**, modu orekatuan.
- Egin **ariketa fisikoa**. Saihestu kontaktu-ariketa eta kolpeak hartzeko arriskua.
- **Saihestu alkohola, tabakoa eta beste droga batzuk**. Medikamentu antikoagulatzaileekin interakzioa izan dezakete.
- Edozein garraibidetan **bidaiatu** dezakezu.
  - Mugitu eta altxatu sarritan.
  - Taupada-markagailua edo balbula baduzu, abisatu.



Tratamendu antikoagulatzailea hartzen baduzu, litekeena da **odol-galerak edo odoljarioak** gertatzea (odola galtzea, sudurretik, gernuan, gorozkietan, zaurien bidez...). Horregatik, garrantzitsua da erorikoak, kolpeak edo zauriak saihesten saiatzea:

- Erabili bizarra mozteko makina bizar-xaflaren ordez.
- Erorikoak: erabili zapatila itxiak eta kontuz alfonbrekin eta eskailerekin. Argiztapen egokia dagoela zaindu.

## KONTSULTATU ZURE ERREFERENTZIAZKO OSASUN-PROFESIONALAREKIN:



- Kezkatzen zaituen **odoljario** bat nabaritzen baduzu.
- **Hematoma** agertzen badira kolperik hartu gabe, handitu egiten badira edo mingarriak badira.
- **Prozedura inbaditzaile bat egin behar badizute, beti** (biopsia, hortzen erauzketa, ebakuntzak...).

## JOAN LARRIALDI-ZERBITZU BATERA:



- **Odoljario handia bada edo gelditzen ez bada** (gorozki beltzak, odoljarioa sudurrean, odoljario ginekologiko ugaria, odola gernuan edo karkaxan).
- **Buruan kolpe bat hartzen baduzu**, edo mina sentitzen baduzu indarrez edo bat-batean.
- **Hizketaren asaldurak edo ikusmen-galera** nabaritzen badituzu.

## KONTSULTATU OSASUN-ARLOKO PROFESIONALEKIN:

- Medikamentu edo produktu natural berriak hartzen hasi aurretik, edo hartu ohi duzun zerbaitei hartzeari uzten badiozu.
- Egoera berezietan, haurdunaldian eta edoskitzaroan, esaterako.



[www.osakidetza.euskadi.eus/ahotik-hartzeko-tratamendu-antikoagulatzailea/webosk00-oskenf/eu/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/ahotik-hartzeko-tratamendu-antikoagulatzailea/webosk00-oskenf/eu/)



## ZER DA?

- Heparina tronboak izatea saihesten duen medikamentu bat da.
- Eragin azkarrekoa da (1,5-4 ordu artean), baina azkar pasatzen da ere; beraz, egunero eman behar da.
- **Aurrez kargatutako xiringetan** erabili ohi da. Funtsezkoa da baieztatzea farmazian medikuak indikatutako kantitatea eman digutela, hainbat aurkezpenetan dagoelako salgai.
- Haurdunaldian eta edoskitzaroan erabil daiteke.

## NOLA INJEKTATU BEHAR DA?

- 1 Garbitu eskuak ur eta xaboiarekin. Lehor itzazu.
- 2 Egiatatu dosia zuri preskribatu dizutena dela edo doitu behar duzun.
- 3 Egiatatu likidua argia dela eta pikorrik ez duela. **Ez atera aire burbuilarik.**
- 4 Jarri eroso.
- 5 Aukeratu zer eremutan sartuko duzun ziztada: Ziztatzeke lekuri egokiena sabelaldean da, zilborretik 5 zentimetro baino gehiagora. Komeni da orbainak saihestea eta egunegun ziztatzeke lekua aldatzea.
- 6 Ez da beharrezkoa larruzala lehenago desinfektatzea, garbi badago. Aldiz, oso zikin badago, garbitu urarekin eta xaboiarekin.
- 7 Kendu orratzaren tapoia eta eutsi xiringa esku nagusiarekin.
- 8 Hautatu duzun eremua beste eskuarekin atximurkatu eta orratza osorik sartu perpendikularrean.
- 9 Injektatu kontu handiarekin enboloa sakatzuz, eduki osoa atera arte.
- 10 Atera orratza. Askatu atzamarrak atximur egindako lekuan.  
**Ez igurtzi eta ez eman masajerik ziztatutako lekuan.**
- 11 Bota aurrez kargatutako xiringa **dagokion edukiontzian** edo zure farmaziako SIGRE puntuan.

Eskaneatu QR hau  
"Nola eman  
heparina?"  
bideoa ikusteko

